

RAMON y CAJAL 2017 DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA

INFORMAZIOA DEIALDIAN PARTE HARTU NAHI DUTEN IKERTZAILEENTZAT

Diru laguntzen ezaugarriak:

175 laguntzatarako deia egin da, horietatik 3 gorde direlarik, %33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko. Gainera, 40.000 eurotako laguntza gehigarria emango zaio onuradun bakoitzari ikerketa jarduera gauzatzearekin zerikusi zuzena duten gastuak ordaintzeko.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuen iraupena gehienez 5 urtetakoa izango da. UPV/EHUn hasiko diren onuradunek 31.600 euro gordin jasoko dituzte urtean, 14 ordainsaritan banatuta.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Sarbide orokorrean parte hartzeko, erakutsi beharko da doktore titulua 2007/01/01etik 2014/12/31ra bitartean erdietsi dela. Kontuan hartuko da lehen tesiaren defentsa ekitaldiaren eta onarpenaren data. *Epe hori betetzeko dauden salbuespenen taula 22.1.a. artikuluan kontsulta daiteke.*
- Desgaitasuna duten pertsonen txandarako, erakutsi beharko da doktore titulua 2004/01/01etik 2012/12/31ra bitartean lortu dela. *Epe hori betetzeko dauden salbuespenen taula 22.1.a. artikuluan kontsulta daiteke.*
- Lehengo Ramón y Cajal deialdietako laguntzarik jaso ez izana.
- Juan de la Cierva edo doktorego ondoko prestakuntzarako laguntzarik jaso ez izana, salbu eta laguntzarekin hasi eta 2017/06/01era arte gutxienik urtebetea izan dutenak.
- GARRANTZITSUA:** Ikertzaileek egonaldiak eginak beharko dituzte gutxien dela 24 hiletan UPV/EHUtik kanpoko I+G guneeetan, azkenik unibertsitate honetan hasten badira.

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko abenduaren 14tik urtarrilaren 16ko 15:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Ikertzaileek berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. Ikertzaileek aurkeztutako eskariek ez dute beharko UPV/EHUn lege ordezkariaren onarpenik.

Ikertzaileek eskaera aurkezteko epea:

Eskaera modu independentean aurkeztuko dute ikertzaileek eta I+G guneeak. Beraz, eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

- Izena eman behar da eskatzaileen erregistro bateratuaren (RUS) ikertzaileen erregistroaren atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>

2. Eskaria egiteko formularioa bete honako aplikazio honetan:
<https://sede.micinn.gob.es/ryc/>
3. Eskaera erregistratu, deialdiaren 24. artikuluan deskribatutako bideetako batetik.

Gomendagarria da maiz egindako galderen zerrenda kontsultatzea, MINECOren web gunean:

MINECOko kontaktua:

Eskatzaileek MINECOri kontsultak egin ahalko dizkiote formulario honen bidez:
http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta_ayudas

Informazio gehiago:

[Esteka](#)

**UPV/EHUri IKERKETA GAIEN PROPOSAMENAK PROPOSATU NAHI
DIZKIOTEN TALDEENTZAKO INFORMAZIOA, DEIALDIAN AURKEZ
DAITEZEN**

UPV/EHUk eskaini beharreko plazen hautaketa (ikerketa gaien proposamena)

UPV/EHUk plaza kopuru mugatua eskainiko du deialdi honetan. Ramón y Cajal ikertzaile bat hartzeko interesa duten ikerketa taldeek edo PIUek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen "ikerketa gaien proposamena" formularioa bidali beharko dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, **2017/11/27tik 2017/12/15era bitartean, biak barne.**

UPV/EHUko kontaktua:

UPV/EHUko taldeek ikerketa gaien proposamenak aurkezteari buruzko galderak egiteko, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzearen, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera jotzea gomendatzen da gaien "Ramón y Cajal" jarrita.

RAMON Y CAJAL DEIALDIAREN FUNTZIONAMENDUAREN LABURPENA

Ramón y Cajal deialdiaren tramitazioa ondoren adierazitako denborazko mugarriak korrituko ditu, hauetariko batzuk ikerketa gaien proposamenarekin lotuak:

1. **1. fasea, pertsonak:** deialdian parte hartu nahi duten pertsonak eskaria egin behar dute, egun UPV/EHUrekiko lotura duten edo ez kontutan hartu gabe.
2. **1. fasea, erakundeak:** Ramón y Cajal deialdiko ikertzaileak kontratatu nahi dituzten ikerkuntza erakundeak eskaria egin behar dute deialdian, bertan aipatuta kontratatu nahi dituzten pertsonen kopurua. Honi deritzogu "ikerketa gaien proposamena".
3. **2. fasea, pertsonak:** Hautatutako pertsonen zerrenda honekin batera, erreserbarako zerrenda bat ere argitaratzen da.

Hautatutako pertsonen zerrendarekin batera, argitara ematen da plazarik eskaini duten erakundeen zerrenda, deialdian hautatutako pertsonen kontratatzeke.

Fase honetan honako egoera hauek gertatzen dira:

- a.- Erabakian "hautatu" gisa agertzen diren pertsonak, nork bere ikerketa ildoan arabera, aukera egiten dute ikerketa gaien proposamenik aurkeztuko duten

erakundeen artean, harremanetan jartzen dira haiekin eta, azkenik, jarduteko konpromisoa formalizatzen dute.

b.- Hautatutako bat harremanetan jarri ahal da, hautabidez, ikerketa gairik proposatu duten erakundeekin, nahiz eta proposamenik bat ere ez etorri bere ikerketa ildoekin bat. Harremanaren bidez, erakundeari eskatzen zaio MINECOri bere garaian aurkeztutako ikerketa gaien proposamenen bat, inork oraindik eskatu ez duena (hutsik) alda dezala eskatzeko, berori aukeratzeko asmoz.

Erakundea ados balego, aldaketa eskatu eta MINECOk onartuz gero, onuradunak erakundearekiko jarduteko konpromisoa formalizatuko du.

4. 2. fasea, erakundeak: erakundeak jarduteko akordioa formalizatu du hautatutako onuradunekin eta, behar izanez gero, MINECOri eskatuko dio alde zuzenetik deialdiaren hasieran aurkeztutako ikerketa gaien proposamenak aldatzeko, beti ere interesatuen jarduna erraztearren.

5. 3. fasea, pertsonak: MINECOk, deialdian aurretik ezarritako epea iragan ostean, argitara emango du behin betiko ebazpen berri bat, non jasoko baititu hasiera batean erreserbarako zerrendan diren pertsonak, hautatutakoren batek ukoarengatik hautatutakoen zerrendara igarota.

Honela hasiko dira lehenagoko 3.a eta 3.b faseak.